



Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB
Arkitektoa

Euskararen txertaketa hirigintza tresnetan

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) bide egiten ari da. 2014ko “Lurraldea eta hizkuntza” lehendabiziko kongresuan (GFA, Kontseilua, UE-MA, UEU) tresna horren beharra aldarrikatu ondoren, hirigintza proiektuen hizkuntza kalteak aldeztetik aztertzeke, bi mugarri legal jazo dira jada: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere proiektu eta planetan ELE aplikatzeko derrigortasuna arautu zuen 2014ko Euskara Planean, eta, bestetik, Udal Legeak EAEko hirigintza proiektu eta planen eragin linguistikoa ebaluatzeke derrigortasuna ere ezarri berri du.

ELEk hirigintza proiektuen eragin linguistikoak ahalik eta modu objektiboenean neurtzen ditu, gaika antolatutako (mugikortasuna, ekonomia, azpiegiturak, soziokultura eta demolinguistika) galdetegi zorrotz baten bidez. %50etik goragoko euskara indizearekin 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan dauden udalerrien antolakuntza espazialerako ezinbesteko tresna prebentiboa da, hortaz. Udalerri euskaldunak bereziki hauskorrak direlako, azken 30 urteotako euskararen bilakaera negatiboak frogatu bezala: soilik EAEn hamazazpi arnagunek 4. gune soziolinguistikoa utzi dute.

Euskal hiztunen kopuru osoaz gain, berebiziko garrantzia duelako euskaldunen dentsitateak, hots, hiztun kopuruak kilometro koadroko.

Idea horretan oinarritzen da arnagune geografikoen teoria. Begirada zertxobait altxatzean, gainera, berehala ikusten da arnagunek multzoak ere osatzen dituztela haien

artean, alegia, dentsitatearen kontzeptua ez dela soilik udalerri mailakoa; eskualde mailakoa ere badela. Eta, eskala horretan, dentsitatea bezain garrantzitsua da trinkotasuna, hots, arnaguneen jarraitutasuna, lurgune euskaldunen artean *continuum* bat osatzea.

Horregatik da hain funtsezkoa euskara lurralde antolakuntzako eta hirigintzako lege eta planetan ere txertatzea. Euskara espazialki ere babesteko, antolatzeke eta kudeatzeko beharra dugulako, benetan suspertuko badugu. Beraz, euskara politiketan sakontzen jarraitzeaz gain, lurralde politiketan ere jardun beharko dugu. Horretarako, oraintxe bi aukera hobeezin dauzkagu EAEn, hilabeteotan bai 2006ko Lurzoruaren Legea bai 1997ko Lurraldea Antolatzeke Gidalerroak berritzen hasi baitira. Biek ala biek barne hartu beharko lukete ELEren beharra, tokiko komunitatearen garapen iraunkorra integralki (baita kulturalki ere) sustatuko badute.

Gidalerro berriek, halaber, arnaguneen berezitasunak ondo azertu beharko lituzkete. 2016 honetan bertan onetsi den egoitza-kuantifikazioak udalerri txikiengan bereziki etxe gehiago planifikatzea proposatzen baitu, arnaguneei kalte berezia eraginez, bertako merkatua «zurrunagoa» delakoan. Horregatik, berezitasun geografikoetan hobeto sakontzeko, Euskararen Lurralde Plan Sektorial bat ere garatu beharko litzateke berandu baino lehen, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan ego-kiro pentsatzeko eta taxutzeko. Euskara babestea eta zabal-tzea helburu. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO